**BERBETAN** ITZIAR IRURETA BASETXEAKO PARTAIDEA • **GEHIGARRIA** PAULA ASTIGARRAGARI ELKARRIZKETA • **KIROLA** KARAKATERA IGOERA AZAROAREN 20AN

# BARREN

ASTEKARIA

EGOIBARKO ASTEKARIA · 2004ko azaroaren 19a/XII. urtea/509. zkia



AZAROAK 22, SANTA ZEZILIA EGUNA

# Ama, musikaz bizi nahi dut

"DO, RE, MI, HANKA OKER HORI; FA, SOL, LA, ZUZENDU ZAIOLA" (esaera zaharra)


Deja bü
Txotxongiloak
Zein polita den
Panama..
Azaroak 20, larunbata
16:30ean
Herriko Antzokian
SARRERAK
Aurrez: Umeak 2€
Gurasoak 4€
Bertan: Umeak 3€
Gurasoak 5€
Takila 16:00etan zabalduko da.
Antolatzaileak:
ELGOIBARKO IZARRA
Laguntzaileak:


"Behin batean... Gabonak"
Idazlehiaketa
2004
Lanak jasotzeko epea
ABENDUAREN 3an
amaitzen da.
Informazio gehiago:
943 74 16 26 (Aiora)
ANTOLATZAILEAK:
ELGOIBARKO IZARRA
LAGUNTZAILEAK:
ELGOIBARKO UDALA
FORU ALDUNDIA


2005
Elgoibar, Altzola eta Mendaro
2005eko Gida Komertziala
BARREN
ASTEKARIA
ELGOIBARKO eta MENDAROKO
GIDA
03
Azkenengo gidan agertu ez bazinen
edo zure negozioko telefonoa
edo helbidea aldatu bada,
deitu 943 74 37 04 telefonora.
PARTIKULARREN TELEFONOEKIN!

asteko notizia



## Udazkena epel

Ahots berriak. Udazkenak ekarri duen haize hotza epelduz, arnasa berriak zirrikitu txikietatik sartuz. Zerbait aldatzen ari den seinale. Itxaropena lokatz artetik atera nahirik. Hainbat presoren gutuna. Donostiako Udaleko PSOE alderdiko zinegotzien idatzia. Eta Batasunakoen deialdia. Arnaldok esan berri du ez dela erraza bakea egitea. Orain urte batzuk gauza bera entzun nion Gerry Adamsi. Bere hitzetan, “askoz errazagoa da gerran bizitzea, bakea eraikitzea baino. Izan ere, bakea eraikitzeko, behar-beharrezkoa da une batez, une txiki batez besterik ez bada ere, arerioaren azalean sartu eta berak sinisten eta defendatzen duena ulertzea. Egiak ez baitu aurpegi bakarra. Errealitatea ikusteko eta ulertzeko modu anitz baitaude”. Pablo Picasso pintoreak ere esan zuen honakoa: “Egia bakarra balego, ezinezkoa litzateke gai berari buruz ehun koadro margotzea”. Guk urteak daramatzagu zirriborroz betetako koadro bati begira. Nork bere mihisea hartu eta bere koloreak margotuz. Aldamenekoaren irudiari begiratu gabe. Zer eta nola egin duen jakiteko batere asmorik gabe. Horregatik iruditzen zait airean badirela partikula bereziak. Azken asteotan oihartzun egin duten hotsak. Haserreak ere sortu dituztenak. Itsuz eta gorrez beteriko gizarte honetan hori baita gaitzik handiena: gaixorik bizitzera ohitu eta sendatzeko pomadaren beharrik ez izatea.

Tira, itxaropentsu izan nahi dut. Ausardia ez da nor bere ideiak defendatzea. Ausardia besteen ahotsa entzutea da, arrazoia ere izan dezaketela onartzea, eta hortik abiatuz hitz egin eta soluzioak aurkitzea.

Poztu naiz udazkeneko haize hotza berotu duten hitzak plazaratu direlako. Sugarra bero mantentzea da orain erronkarik handiena. Lortuko al dugu?

**Jasone Osoro**



## 7285 egun

Edo ta 1040 aste pasata edo ta 20 URTE. Gutaiko askontzat, ixa bizitza osua, hain justu, Inazio Iriondok preso sartu zutenetik daruan denboria. Bizkor esaten dan zenbakixa da, datorren Azaruaren 27xan betekoianak. Zaila etxen zaitx zerbaitx esatia betikotasunian eroi gabe. Berriro gogora dezakegu dagoeneko kalian behar lukela, bera moduan 3/4ak beteak ditxuzten beste presuak bezalaxe, edo ta goixotasun larriak ditxuztenak bezala (Barandalla Askatu). Baina espiñiar inperixoko demokrazi honetan horrelakorik ez espero, hori bai galindo moduko pertxonaiak kalian lasai dabiltza, egixa esan barruan bezain lasai. Dispertsiñua ere ezagutu dau bere bizkarretan, honek suposatzen dauanakin, ez presuantzat bakarrik, baitxa bere familixa ta lagunentzat gehitxutako zigorra ere delako hau. Aste hontan, urte honetako 39. istripua izan dabe bizitxan zoiazien preso baten hurbilekuek, baina honen aurrian be baskongadetako demokrata pilluak ez dau ezebez esango.

20 urte beste hainbat lagunekin batera atxilotu zutela polizia nazionalak, txakurtegira eruan ta betiko menua. Nolakuak diran gauzak, urteak pasa ahala gauza batzuek hor dirautela, komisaldegi, kuartelillo zein baseetan eskeintzen daben menua, M-akekuek ederki kantatzen zaben moduan. Urrian Bilbo aldean guardia zibilek ein zaben sarekadan atxilotutako ia guztixek probau zaben, ta 17tik 3 bidali ditxuste imperixoko hotel ezberdinetara. Hau irakurri orduko, inkomunikaziñua bukatuta eukiko dabe ta epailian aurretik pasatzen hasitxa egongoia, leno aske geratu ez badia, martitzenian Hego Euskalerrixan polizia nazionalek atxilotu zituzten lagunak.

20 urte hauentan ezer gitxi aldatu da gure inguruan, hori bai herrixan etxe pila ein dabez, gaztetxeik ez da, irratixa berpizten ai da poliki poliki, merkadillorik ez dao ta hileko azken zapatuko peixia ere lekuz aldatzia nahi omen dabe, hurrengua ze ote?

Aldatuko ez dena zu Inazio ta zu modukuek erakusen duzuen umiltasun horretik, guretzat eredu dan duintasuna. Besarkada bero bat.

**Nestor Fuente**

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Kexak .......... 5
motz Motz .......... 8
gehigarria .......... 13
kiRolAk .......... 20

2004-XI-19

## METALARI BIHOTZEZ

Kaixo Julio :

Oin dala hilabete batzuk egunkari baten irakurri nion Vicente Verdú-ri alargundu ostian, hildakuentzat, hiltzia baino okerraua zala desagertzia, hau da, hiltziaz aparte, bestiok aiztu eitxen garala hildakuakin

Ba ni , ez nago batere konforme.

Bizirik daozen pertsonak desagertzen diala ere egixa da; goizero entzuten genduan Mariano Ferrer esataria bezela, ze, nik dakitxela ondiok bizirik dao baina, aiztu ein gara berakin, gure bizitzatik erten da, nahiz eta urtetan goizero bera entzuten armosatzen genduan. Ez dago hilda, baina desagertuta dao.

Baiña Julio, hire kasua oso diferentia da. Hi bai, hil egin haiz, baina ez haiz desagertu, eta sarritan egoten naiz hirekin; esate baterako, inguruko mendi tontorren batera ailegatzen garenian hire irrintziak edo ez entzuterakoan, Pirinioetako edurretan, perretxikotara juten garenian (aurten ere eman ditxu “gure kotuak”), eguenetako afarixetan (gitxitxan juten banintzan arrazkero ez naiz agertu), Metaltarren bazkarixan, aste barruko San Mameseko partiduetan (aspaldiko partez han egon gera), tallerreko gorabeherak, ikastolak, umiak, etxekuak... zelan egongo haiz desagertuta inoiz baino presentiao bahao barren ? .

Urtebete luze honetan makina bat senide eta lagun hirekin akordau eta negar egin dogu, baina baitxa ere, eskerrak eman hi bezelako jentia ezagutu eta gozatzeko suertia euki dogunok. Beti arte.

Hire lagun eta lehengusua.

**Joseba Konde Zubiaurre**

# Urruzunoren begi ezkutua

## Larrosa bat basamortuan



Ingeleseko klasetik irten eta ajendan begiratu zuen. Hurrengo orduan? Literaratura. Irakaslea, beti bezala, puntual azaldu zen. Berezia tipoa. Klariona txuria hartu, eta gelaren hegoaldetik ekialdera zioan arbel beltzean “abestia” hitza idatzi zuen. “Egun guztiak dira ezberdinak. Batzuk urdinak, beste batzuk motzak, eta bakan batzuk luzeegiak eta beltzak. Hamabost lerrotan, indarrak eta gogoak makal dituen egun gris eta goibel horiek arintzeko, norberak bere buruari eskainiko lioken abesti bat idatzi beharko du.” Folio txuriariaren neurriak neurtzen pasa zituen hurrengo minutuak, burmuineko bazter eta zirrikitu danak garbitzen, arrazoien bila, motibazio bila. Galduta ibili zen pentsamenduen munduan, handik hamabost minutura, ausardiaz beterik, folio txuriaren gainean behar bezala lur hartu zuen arte. Eta idazteari ekin zion, gogoz, “Larrosa bat basamortuan, izar bat nire ondoan ……….. “ ariketa bukatzea lortu zuen arte. Zer esaten zuen abesti hark? Horixe bera galdetu nion nik bost urte beranduago, bere lehenengo bira mundialari hasiera eman baino lehen. “Ezin dizut esan” erantzun zidan. “baina egunero egunero isilpean gogoratu eta abesten dudan abestia dala zin dagizut”.

**Eguzkiñe Aranberri**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzeak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.







ASTEKARIA
**BaRRen**

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

**LAGUNTZAILEA** Elgoibarko Udala **ZUZENDARIA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIA** Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **ZUZENTZAILEA** Unai Villena **KOLABORATZAILEAK** Esther Gurrutxaga, Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. **AZALEKO ESAERA ZAHARRA** Gotzon Garateren liburutik **INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.275 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

gizarte ekintza
DANOBAT
GOITI
ESTARTA

## KEXAK

◆ Herritar batek esan digunez, **Txankakuako zubi azpiko pasagunea oso labaina egoten da**: “Euria egiten duenean sekulako beldurrez pasatzen gara Txankakuako zubi azpiko pasagunetik. Oso labaina egoten da, batez ere, aldapa behera joaterakoan. Adinekoek kontu handiz ibili behar izaten dute, erortzeko arrisku handia baitago. Barandilla bat jarri, edo ez labaintzeko dauden baldosak berritu egin beharko lirateke, erabat zaharkituta baitaude”.





◆ Gizon batek azaldu digunez, **Madalako errotondan sekulako putzua sortzen da euria egiten duenean**: “Euria egiten duen egunetan, Madalako errotondan, sekula ur putzua sortzen da. Azkar joan ez arren, autoak sekulako gelditua hartzen du, eta susto galanta hartzeaz gain, arriskutsua da. Ez dakit irtenbiderik izango duen honek, baina hemen euri asko egiten duela kontuan izanik, zerbait egitea komeniko litzatekeela uste dut”.

◆ Emakume batek esan digunez, **ostegun goizetan kalera irtendakoan sekulako jende falta sumatzen da**: “Ostegunetan kalera irten eta Plaza hutsik ikusteak sekulako tristura ematen du. Merkatu Plazan bertan ere, askoz jende gutxiago ibiltzen da. Denborarekin herrira etortzeari laga behar izango diote baserritarrek. Ostegunetako azoka kentzea ez da herriko komertzio txikiak bultzatzeko bidea”.





◆ Emakume batek esan digunez, **Txankakuako autobus geltokiko markesina puskatuta dago**: "Joan zen asteko euria eta hotzarekin erabat izoztuta gelditu nintzen autobusaren zain. Denbora mordoa darama Txankakuako autobus geltokiko markesinak kristalik gabe. King.kong-ekoa ere berdin dago, eta han gauza bera gertatzen da. Kristala material delikatua baldin bada, egin ditzatela markesinak puskatzen ez den material batekin, baina mesedez, lehen bailehen konpon ditzatela, negua gainean daukagu-eta".



# Ama, musikaz bizi

*Santa Zezilia, Musikarien zaindariaren eguna, ospatuko da azaroaren 22an, astelehenean. Herri musika zalea da Elgoibar eta askok izango dute zer ospatua. Gehiago ere badiren arren, hauxe da aste honetako erreportajeko sei protagonisten kasua, musikatik bizi edo bizi nahi luketen sei musikari profesional baitira. Hain zuzen ere, musikaz duintasunez bizi al daitekeen eta zer den musika beraientzat galdetu diegu.*

## SILVIA HERNANDEZ (Pianoa)

Pianoa, Musika Lengoaia eta Koro irakaslea da Silvia Hernandez Gasteizko Musika Eskolan. Honetaz gain, Soraluzeko koroa ere zuzentzen du, eta gainera, Gasteizko Bokalia koroan abesten du. Aste guztia musika irakasten jardun ostean, zenbait igandetan elkartzen da Bokalia koroarekin entsaiatzeko: “Emakumeen koroa da. Jende oso ona dago, eta gauza asko ikasten ari naiz. Gainera bidaia asko egiten ditugu, eta oso gustura nago”.

Goi mailako piano ikasketak egin zituen Silviak: “Oso argi neukan musika ikastea nahi nuela, eta COU bukatu ostean pianoarekin jarraitzea erabaki nuen. Lana aurkitzea ez da erraza, toki askotan ibili naiz, eta azkenik Gasteizen bilatu dut nire gustuko lana. Bidaia da txarrena”. Silviak esan digunez, momentu honetan bere bizitza da musika: “Etxekoak eta lagunak ahaztu gabe, musika nire bizitza da, nire hobby-a eta lana. Terapia modukoa da, buruko mina baldin badaukat, koroan abesten hasten naizenean dena pasatzen zait”. Hala ere, lan gogorra dela aitortu digu: “Etxean prestakuntza lan handia egin behar da, lanetik irtendakoan ezin da erabat deskonektatu. Eguneroko lan handia eskatzen du musikak”.



## GUSTAVO BARRENETXEA (Tronpa)

1993. urtetik Sevillan bizi da Gustavo Barrenetxea, eta bertako orkestrako tronpa joleetako bat da. Oso gazte hasi zen musika ikasten: “Iñaki Gorostiza (Tola) eta ni beti elkarrekin ibiltzen ginen gaztetan. Bere aitak musikarako zaletasun handia zeukan, eta solfeoan apuntatu zuen Iñaki. Orduan, ni ere solfeoa ikasten hasi nintzen. Gero berak utzi egin zuen, eta nik, aitak derrigortuta jarraitu egin nuen. 4. mailan instrumentua aukeratu behar genuen, eta nik berehala esan nuen tronpa jotzea nahi nuela”. Donostiako kontserbatorioan egin zituen Tronpa Ikasketak. 12 urterekin Elgoibarko Bandan jotzen hasi zen, eta Santa Zezilia Egunean debutatu zuen. Bestalde, Euskadiko Orkestra eta Iruñako Pablo Sarasate Orkestrako partaidea ere izan zen.

Musika oso garrantzitsua da Gustavorentzat: “Musikaren bitartez istorio bat kontatzea oso polita da, eta askoz politagoa beste 100 lagunekin batera istorio bera kontatzea. Musikaren esanahia oso garrantzitsua da, esanahirik gabe nota solteak dira”.



## DAVID TEJERO (Oboe irakaslea)

David Tejero Santanderreko Ataulfo Argenta kontserbatorioko Oboe irakaslea da duela 10 urtetik. 8tik 14 urtera bitartean akordeoia ikasi zuen baina Bandan sartu nahi zuenez, Oboea jotzen hasi zen, beharra zegoela esan baitzioten. 15 urterekin sartu zen Bandan. Bergaran eta Donostian burutu zituen oboe ikasketak. Guztira 8 urte goi mailako titulua lortzeko. Badaezpada Delineatzaile karrera ikasi zuen eta lan horretan ere aritu zen. Aldi berean Oboe klaseak ematen zituen, ordea, eta bi lanak parekatu zitzaizkionean, aukeratzeko unea iritsi zitzaion. “Guztiok bilatzen dugu gustatzen zaigunaz bizitzea, arriskatu eta ondo atera zitzaidan. Musika bizitzeko modu edo filosofia bat da niretzat. Jaikitzen naizenetik pentsatzen dut musikan. Lanbide berezia da eta musikariok gure artean nahiko mundu itxia osatzen dugula iruditzen zait”.

Oboeak instrumentu ezezaguna eta zail xamarra izatearen fama du, “jende gutxik aukeratzen du, eta honek musikaz bizitzeko aukerak areagotzen ditu. Ez da erraza, baina lortu daiteke, edozein tokitara joateko prest egon eta une aproposean toki egokian egoten asmatu behar da”.



# nahi dut



## IBAN GINEA (Tronboia)

Bederatzi urterekin hasi zen Tronboia ikasten. Gradu ertaineko ikasketak Elgoibarren eta goi mailakoak Donostian atera zituen. Egun Goi Mailako Euskal Herriko Musika Eskolan (Musikene) ikasten ari da jazz estiloan espezializatuz. “Musikari baten ikaste eta birziklatze prozesua ez da sekula amaitzen eta aurki Rotterdam-era joateko asmoa dut, mundu mailako Tronboi irakasle onenetarikoa baitago bertan”. Orkestraren bateko kidea izatea gustatuko litzaioke, ahal izanez gero Euskadikoa. Bi urte egin zituen Euskadiko Gazte Orkestran eta une honetan Bilboko Operako orkestran aritzen da. Horrez gain, hainbat herritatik deitzen diote tronboia irakasteko, eskaera handia eta irakasle gutxi baitago. “Tronboiak musika klasikoaz gain beste estilo batzuk jorratzeko aukera eskaintzen du eta “Acido-C” funky-jazz taldean ere jotzen dut”. Irakaskuntzaren bidetik musikatik bizi daitekeela dio, baina orkestran postua lortzea zailagoa ei da. “Plazak urriak dira eta prestatutako jende asko aurkezten da oposizioetara, baita musikari atzerritarrak ere”. Bere bizitzaren parte handi bat da musika, “txikitatik jo, ikasi eta entzun izan dut musika, baina ez nuke dena musikara mugatu nahi, bizitzan beste gauza garrantzitsu asko baitaude”.

## GORKA ERREZIL (Perkusioa)



Santa Zezilia Eguna, egun handia da Gorka Errezilentzat: “Musika talde desberdinetako partaidea naizenez, konpromiso asko izango ditut asteburuan zehar”. Ikastolan zebilela, Elgoibarko Udal Txistulari taldean tanborra eta txistua jotzeko jendea falta zela esan zioten. Aukera polita iruditu zitzaion, eta txistua jotzen hasi zen herriko txistulariekin. Denborak aurrera egin ahala, perkusioak aukera zabalagoak eskaintzen zituela ohartu zen, eta Donostian hasi zen musika ikasketak egiten. Gaur egun, Goi Mailako Musika titulua dauka, eta Gasteizko udaletxean egiten du lan: “Bi zatitan banatzen da nire lana: batetik Gasteizko Udal Txistulari taldean atabala jotzen dut, eta bestetik, Gasteizko Udal Folklore Eskolan perkusio klaseak ematen ditut. Azken finean, nire hobby-a eta lana da musika”.

## ELUR ARRIETA (Perkusioa)

Elur Arrieta Euskal Herriko Goi Mailako Musika Eskolan (Musikene) ari da, Goi Mailako Perkusio ikasketak burutzen. Honetaz gain, Elgoibarko Bandan ere jotzen du, “Arima Beltza” blues taldeko bateria jolea da eta Euskadiko Gazte Orkestrako partaidea da, eta esan digunez, aurtengo Gabonetan Txinara doa Orkestrarekin. Elurrek esan digunez, musikaz bizitzea posible da, baina ez da erraza: “Satisfazioa eskaintzen duten postuak gutxi dira, eta oso disputatuta daude. Orkestra on batetako partaide izatea gustatuko litzaidake”. Gaztea den arren, urte asko daramatza Elurrek musikaren munduan, eta musikarekiko zeukan kontzeptua asko aldatu da: “Lehen gauza gutxirekin emaitza handiak lortzen zirela uste nuen, baina orain konturatu naiz, emaitza txikiak lortzeko lan handia egin behar dela”. Bere hitzetan, “musika artea da, baina bere atzean publikoak ikusten ez duen mundu gogorra ezkutatzen da”.



# Ubitarte Buruko Babes Ofizialeko Etxebizitzak 2007rako egingo dituzte

## 8.479.000 euroko aurrekontua dauka proiektuak



*99 etxebizitza egingo dituzte guztira.*

Eusko Jaurlaritzatik jakinarazi dutenez, Ubitarte Buruko Babes Ofizialeko Etxebizitzak 2007. urteko lehen sei hilabetekorako egingo dituzte.

Proiektuak 8.479.000 euroko aurrekontua dauka, eta enpresa egileak urtebeteko epea izango du obrak hasten direnetik bukatzeko. Guztira 99 etxebizitza egingo dira bi bloketan banatuta, bata 80 etxebizitzakoa eta bestea 19koa. Etxebizitza bakoitzak trasteroa eta garajea izango ditu. Honetaz gain, salgai jarriko diren 71 garaje plaza gehiago egitea aurreikusten da.

Etxebizitzak mota desberdinetakoak izango dira: bi etxebizitza logela bakarrekoak izango dira; 40 etxebizitza bi logelatakoak; eta beste 57 hiru logelatakoak.

Dagoeneko jakina den bezala, etxebizitza hauen zozketa urriaren hasieran egin zen Olaizaga kiroldegian. Hala ere, oraindik errebisioak egiteko daude, beraz, itxaron-zerrendan zeuden batzuk ere, etxebizitza izateko aukera daukate.

### Natura zaintzeko etxebizitzak

Ubitarte Buruko Etxebizitzak eraikitzerakoan natura zaintzeko metodoak erabiliko dira. Etxebizitza bioklimatikoak izango dira, hau da, eguzki indarra jasotzeko panel batzuk izango dituzte ura berotzeko. Honetaz gain, ingurumenarekin loturiko beste hainbat aspektu ere zainduko dira etxebizitza hauek egiterakoan..

# Merkadilloaren heriotza antzeztu zuten azokako merkatariek




Azokako merkatariek ostegunetako merkadilloaren heriotza irudikatu zuten atzo, hilak 18, Plaza Handian. Beraien ustez, azoka Sigmara eramateak, azokaren heriotza ekarriko du, eta hori adierazi nahi izan zieten udaletxeko agintariei. Merkatariek beraien posturari eusten diote, eta ahal duten bitartean mobilizazioak egiten jarraituko dute.

Bestalde, atzo bertan, herriko sindikatuekin bilera egin zuten, baina honen berri datorren astean emango dizuegu.

# Leire San Martin gasteiztarrak irabazi du Musika Eskolako kartel lehiaketa

2005eko Elgoibarko Herria Instrumentu Taldeen IV. Lehiaketarako kartela aukeratzeko lehiaketa, Gasteizko Leire San Martinek irabazi du. Guztira, 12 lagunek hartu dute parte Inazio Bereziartua Musika Eskolak antolatutako lehiaketa honetan, eta antolatzaileek esan digutenez, duda handiak izan zituzten kartela aukeratzerako orduan. Kartelaren xumetasun eta koloreen bidez, lehiaketaren ideia oso ondo islatzen zuelako aukeratu zuten Leireren lana. Irabazleak 300 euroko saria jaso zuen.



## Asteburu honetan bukatuko da Debabarrenako jazzaldia

### “Tres hombres” taldea gaur Herriko Antzokian



Bi kontzertu falta dira Debabarrenako “Debajazz” jazzaldia bukatzeko. Lehenengoa gaur gauean izango da Elgoibarren, hain zuzen ere. Gaueko 22:15ean “Tres hombres” taldearen emanaldia izango da. Talde madrildarrak jazz, blues, soul, funk eta swing musika egiten du. Estilo beltzak fusionatu eta horren inguruan inprobisatzen duen taldea da.

Jazzaldiko azken kontzertua bihar izango da. Soraluzeko kapillan Iñaki Salvadorren emanaldia izango da, gaueko 22:30etik aurrera.

## Euskal preso politikoak euskalherriratzeko sinadura bilketa

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak sinadura kanpaina bat jarri du martxan, Euskal Preso Politikoen euskalherriratzea aldarrikatzeko helburuarekin. Joan zen larunbatean, hilaren 13an, hasi zen kanpaina Euskal Herri mailan, eta Elgoibarko Plaza Handian ere, sinadurak biltzeko mahaia jarri zuten. Antolatzaileek esan digutenez, 50 sinadura inguru jaso zituzten. Eguraldiak ez zuen batere lagundu, eta ezin izan zuten nahi zuten guztia egin, baina kanpaina luzea denez, oraindik ere sinatzeko aukera gehiago egongo direla azaldu digute.





## EHNA egiteko aukera berria azaroaren 27an

Datorren azaroaren 27an Euskal Herriko Naziotasun Agiria egin ahal izateko mahaiak jarriko dituzte Plaza Handian. EHNA egin nahi dutenek Nortasun Agiria eta 3 argazki eraman, eta 15 euro ordaindu beharko dituzte. Hilabeteko epean EHNA etxean jasoko dute.

## Gipuzkoako 100 gaixo inguru bildu ziren hilaren 14an Elgoibarren

Elgoibarko Parrokiako Pastoralak antolatuta, Elgoibar, Azpeitia, Azkoitia, Zumaia, Zarautz, Orio, Getaria eta Zestoako gaixoak elkartu ziren joan zen igandean, hilaren 14an, Elgoibarren. Eguerdiko 12:30ean meza izan zuten San Bartolome parrokian, eta ondoren, bazkaria egin zuten Sigma jatetxean. Hotz handia egiten zuen, bolatokian egin genien argazkia meza ostean.



## 49 etxebizitza berri Geminis enpresa zegoen lekuan

Diputatuen Kontseiluak hartu duen erabaki bati esker, Elgoibarren 49 etxebizitza egin ahal izango dira Elgoibartik Markinara doan errepidearen hasieran, Aizkorri deritzan alderdian, hain zuzen ere. Elgoibarko Udalak aurkeztutako testu bateratu batean jaso dira eraikinetatik errepideraino utzi behar den tarteari dagokionez Hirigintzako eta Lurralde Antolaketako Zerbitzuak emandako jarraibideak. Hala, hiru metroko tartea izango da etxeen eta errepidearen artean, oro har, nahiz eta hirutan 2,5 metrokoa izango den, lehendik dauden eraikin edo elementuak jaso egingo direlako.

## Magosto Eguna bihar, hilak 20

Galiza Kultur Elkarteak antolatuta, Magosto Eguna ospatuko da bihar, hilak 20, Nafarroa Plazan. Egun osoan zehar, Galizako produktu tipikoen salmenta egingo dute, eta edalontzia erostearen truke Ribeiro ardoa banatuko da. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera 500 kilo gaztaina erre eta doan banatuko dituzte.

### Biztanleriaren % 35eko konexio portzentajearekin, Euskal Autonomia Erkidegoan erabiltzen da gehien internet Espainian

# ERABILTZEN AL DUZU INTERNET? ZERTARAKO?



## ANDONI SAGARDUI

**51 urte, aholkularia**

Bai, teknologia, informazio eta komunikazio aholkularia naiz, eta egun osoan internetera konektatua ibiltzen naiz. E-mailak bidaltzeko, informazioa bilatzeko, eta zaletasunez ere erabiltzen dut. Giza abantaila da.

## Mª DOLORES FERNANDEZ

**44 urte, espezialista**

Nik ez, baina nire semea egun osoan konektatuta egoten da. Mundu horrek ez nau gehiegi erakartzen. Hala ere, badakit etorkizuna hori dela. Abantaila handiak eskaintzen ditu, baina momentuz ez dut erabiltzen.





## SORKUNDE ARCE

**28 urte, metalurgia langilea**

Ez. Lanerako ez dut behar, ez daukat ordenagailurik etxean, eta ez dut sekula internet ikastarorik ere egin. Hala ere, abantaila handiak eskaintzen dituela uste dut, eta aukera izango banu, erabiliko nuke.

## SONIA MENDO

**18 urte, ikaslea**

Ez, oso gutxi erabiltzen dut. Etxean ez daukat interneterako konexiorik, beraz, eskolan bakarrik erabiltzen dut. Aurrerapen ona da, eta etxean izango banu, askoz gehiago erabiliko nuke.





## MARIA DOLORES ESPAÑA

**23 urte, garbitzailea**

Bai, Bolivian dauzkadan senideekin hitz egiteko. Posta elektronikoa, kamara eta audifonoa erabiltzen ditut, honela entzun eta ikusi egin ditzaket. Informazioa jaso eta prentsa irakurtzeko ere erabiltzen dut.

## MIKEL SOLAS

**14 urte, ikaslea**

Bai, etxean ere badaukat internet, baina batez ere, liburutegian erabiltzen dut. Messengerrean txateatu, e-mailak idatzi eta eskolako lanak egiteko informazioa bilatzeko erabiltzen dut, batez ere.



ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

## Pertsonen gestiorako eredua aurkeztu zuten IMHn



Kalitatearen Europar Astearen baitan, IIP Pertsonen gestiorako eredua aurkeztu zuten IMHn. Kalitatearen Europar Astea urtero antolatzen da Erkidegoan, esperientziak elkartrukatu eta erakundeen elkar-lehiako kalitatearen garrantzia erakusteko. Imanol Lopez Lacalle Lanbide Heziketako Kalitaterako eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziako Kalitatearen Zuzendariak inauguratu zuen jardunaldia. Berarekin batera ondorengoak izan ziren: Kike Intxausti eta Rosana Gutierrez, Agentziaren aldetik, eta Juantxo Mendikute, Jesus Agirre, eta Ixaka Egurbide R5 ikastetxeen ordezkaritzan. Hizketaldian izan ziren ehun pertsonek zuzenean ezagutu ahal izan zituzten IIP estandarraren aplikazioarekin lortutako emaitzak R5 osatzen duten Lanbide Heziketako ikastetxeetan (Usurbil, Bidasoa, Tolosa, Bergara y el IMH).

Soluziona aholkularitzaren bidez egindako diagnostikoaren emaitzarekin, lau hobekuntza arlo identifikatu zituzten: Urteko Kudeaketa Plana, Lanpostuko ebaluaketa, Lanpostu eta funtzio berrietara harrera, eta Heziketa eta garapena.

## Santa Zezilia Eguneko kontzertua eskainiko dute Musika Eskolako ikasleek



Azaroaren 22an Santa Zezilia Eguna da, musikarien eguna, alegia. Urtero bezala, musika izango da protagonista gure herrian, eta ospakizunekin hasteko, Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute gaur arratsaldean, 19:30ean. Musika Eskolako Auditorioan izango da kontzertua, eta denetariko doinuak entzuteko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek. Besteak beste, pianoa, klarinetea, saxofoia, akordeoia, trikitixa eta panderoa joko dituzte ikasleek.

## Ikastolako ikasleak prentsaren mundua ezagutzen ari dira

Ikastolako LH 6. mailako neska-mutilak "Diario Vasco" egunkariko erredakzioa bisitatu zuten joan zen azaroaren 3an. Ondoren Realaren entrenamendua ikusteko aukera izan zuten, eta baita jokalarien sinadurak jasotzeko ere. Arratsaldez, Zarauzko "Graficas Otzarreta" inprimategian izan ziren, eta bi egun beranduago BARREN bisitatu zuten.



*Argazkian, ikasleak Markel Bergara jokalari elgoibartarrarekin.*

## ESKOLA KIROLA

### AGENDA

ATLETISMO JARDUNALDIA
Azaroak 20
Mintxetan

**Benjaminak**
**10:00** 50m
**10:45** Pilota
**11:30** Altuera/luzera
**12:15** 4 x 50m

**Alebinak**
**10:00** Pilota
**10:45** Altuera/luzera
**11:30** 60m
**12:15** 4 x 60m

**Infantilak**
**10:00** Altuera/luzera
**10:45** 80m
**11:30** Pisua
**12:15** 4 x 80m

**5. Jardunaldia**
(atzeratutako partidua)
Azaroak 20

**ESKUBALOIA, Kiroldegian**

**Infantil neskak**
**09:05** BHI **A** - Ikastola **A**

## Ikastolakoen kalejira

Elgoibar Ikastolako LHko ikasleek kalejira egingo dute datorren astelehenean, azaroak 22. Azken urteotako ohiturari eutsiz, Plaza Handitik aterako dira goizeko 8:30ean, eta San Bartolome kaletik abiatuz, San Frantzisko kalea pasatu ostean Ikastolara abiatuko dira. Arratsaldean berriz, alderantzizko norabidean egingo dute kalejira. Arratsaldeko 16:30ean Ikastolatik aterako dira, eta herriko kaleak zeharkatu ostean, Plaza Handian bukatuko dute.

# "Zilarrezko Q Saria egindako lanaren errekonozimendua izan da"



## CARLOS ANSOLA
## PATXI ESCUDERO

*Elgoibarko BH Institutuak sortu zeneko 50. urteurrena ospatzen du aurten. Ospakizun ekintzak aurrerago egiteko asmoa dute, baina berriki jaso duten Zilarrezko Q saria une aproposean iritsi da. Abenduaren 20an jasoko dute saria Eusko Jaurlaritzak Bilboko Euskalduna jauregian egingo duen sari banaketan. Q saria zer den eta ikastetxearentzat zer suposatzen duen jakin nahian Carlos Ansola eta Patxi Escudero irakasle eta kalitate arduradunekin elkartu gara, beraiek baitira saria lortzeko balio izan duen memoria idatzi dutenak*

### ■ Zer dira Q sariak?

Eusko Jaurlaritzak gestioan nabarmendu diren enpresa eta ikastetxeen artean urtero banatzen dituen sariak dira. Baldintza batzuk bete eta memoria bat idatzi behar da aurkezteko. Ondoren Euskalit (Kalitaterako Euskal Fundazioa) erakundeak egiten duen balorazioa gainditu behar da. 400 puntu baino gehiago lortuz Zilarrezko Q Saria eta 500 puntutik gora lortuz gero, Urrezko Q saria. Gurea zilarrezkoa lortu duen 5. ikastetxe publikoa izan da. Urrezkorik oraindik ez zaio eman ikastetxe publiko bati.

### ■ Zer neurtzen da Q sarietan?

Ikastetxearen gestioa neurtzen da, hau da, kudeaketaren egoera edo maila. Alor asko kontutan hartzen dituen eredu zabala da. Batetik 5 irizpide nagusi: gidaritza edo lidergoa (pertsonek nola bultzatzen duten ikastetxea); politika eta estrategiak definituta dauden; pertsonen gestioa; prozesuak (jarduera guztiak modu sistematikoan egiten diren); eta azkenik baliabide eta aliantzak (erakunde, jaurlaritza, enpresa eta beste ikastetxeekin) nola gestionatzen diren. 5 eragile horietaz gain, emaitzetan 4 irizpide hartzen dira aintzat: bezeroak (guretzako ikasleak, gurasoak eta enpresak); bertako langileak; emaitzak gizartean eta funtsezko emaitza nagusiak (selektibitatea, laneratzea, emaitza akademikoen batezbestekoak, e.a).

### ■ Zer suposatu du ikastetxearentzat?

Egindako lanaren errekonozimendua izan da. Memoria idaztea oso gogorra izan baita, eskola ia guztia mobilizatu behar izan dugu. Jende askori galdetu behar izan diogu nola egiten zuen hau eta bestea.

### ■ Nola neurtzen du puntuazioa Euskalit erakundeak?

Euskalit-ekoek guk bidalitako memoria irakurri ostean, sei pertsonako talde bat bidali zuten Institutura eta bi egunez bertako 30 pertsona (irakasle, ikasle, guraso...) ingururekin egon ziren galdeketak eginez. Memorian idatzita dagoena errealitatean egiaztatzerik ba al dagoen frogatzen saiatzen dira. Gero, irizpide bakoitzaren puntuazioa jasotzen duen txostena bidali ziguten; zer ez dagoen ondo eta hobetzeko zer egin daitekeen aholkatuz.

### ■ Zer helburu dute sari hauek?

Hezkuntza Sailak lehenengo mailako ikastetxe batzuk, "el club de los pata negra" guk diogun moduan, identifikatzeko baldintza batzuk jarri zituen. Jaurlaritzak proiektu interesgarrienak eta baliabideak nora bideratu erreferentzia bat izateko baliagarriak dira. Zenbait onura gureganatzeko aukera zela ikusirik, erronka moduan hartu genuen Q saria lortzea.

### ■ Memoria euskaraz idatzi zenuten, ezta?

Bai, eta euskaraz idatzi duen lehen ikastetxe publikoa izan gara. Gure plan estrategikoan euskarari eta euskalduntzeari garrantzi handia ematen diogu, gure faktore kritiko bat da. Pasilloetan gaztelera entzun arren, eskolan hizkuntza bakarra da: euskara. EGA gainditzeko prestatzen dugun jende kopurua da indize esanguratsu bat.

### ■ Noiz hasi zineten memoria idazten?

Euskalit-ek antolatutako formakuntza prozesuetan parte hartu genuen. Ikastaroen bitartez memoriak idazten ikasi eta 2003-04 ikasturtea memoria idazteko erabili genuen. Dena dela, istorio honen jatorria, "kalitatearena" alegia, 1996an bi eskolek bat egin zutenean dago. 2.000. urtean, berriz, ISO2000 lortzea egokia zela ondorioztatu genuen, gauzak esaten dituzun moduan egiten dituzula ziurtatzen baitu. Memoria orain arteko eskolaren historia da, baina ez da momentu konkretu honetako gestioa bakarrik baloratzen, orain arteko ibilbidea eta izandako bilakaera baizik. Gutxi gorabehera azken 10 urteotakoa. Inork ez dezala pentsa, ordea, atseginez irakurtzeko moduko testua denik, erabat teknikoa baita, estilo oso gogorrean idatzia.

2004ko azaroa/XII. urtea/509. zkia

BARREN ASTEKARIA

# elkarrizketa





**ETXEAK TEILATUTIK HASITA ERAIKITZEN EZ DIREN GISAN, GIZAKIAK ERE OINETATIK HASI BEHAR DU JANZTEN, ETA ZER HOBERIK ZAPATA PARE GOXO ETA DOTOREA BAINO? HORIXE DA PAULA ASTIGARRAGAK BIZITZA GUZTIAN SALDU DUEN IDEIA, BATEZ ERE, DUELA 58 URTE OSORO ZAPATA DENDA IREKI ZUENETIK. ELGOIBARTAR ASKOREN OINAK JANTZI DITU EMAKUME LANGILE HONEK ETA BERE LANBIDEA BIZI ETA GOZATU IZAN DUELA IGARTZEN ZAIO. LANA LAGATA DAGOEN ARREN, KONFIANTZA GUZTIZ EGINGO GENIEKE MEN BERAK EMANDAKO GOMENDIOEI ETA AHOLKUEI, MERKATUKO AZKEN BERRIKUNTZEN BERRI EMATEKO GAI BAITA ORAINDIK ERE, ZAPATA BAKOITZAREN EZAUGARRI ETA GUZTI.**

## *Paula Astigarraga*

"EGUNGO GAZTEEK ERRAZAGO EROSTEN DITUZTE ZAPATAK, LEHEN AHAL ZENEAN EROSTEN ZIREN"

*SAN LORENTZO BAILARAKO AMESTI BASERRIAN SORTU ZEN PAULA ASTIGARRAGA 1920. URTEAN. OSO GAZTERIK LAGA ZUEN BASERRI MUNDUA ETA KALEKO BIZIMODURA MOLDATU BEHAR IZAN ZUEN. ELKARRIZKETA HONETAN AITORTU DIGUNEZ, ORAINDIK BIZITZARI BURUZ EZER GUTXI ZEKIELA HASI ZEN LANEAN 14 URTEREKIN. BIZIMODU GOGORRA IZAN DUELA AIPATU DIGU ETA HEZURRAK LAN PIXKA BAT EGINDA LAGAKO DITUELA MUNDU HONETAN GAINERATU. DENA DELA, HARRO DAGO LORTU DUENAZ ETA BAITA NEGOZIO ETA FAMILIA BAT AURRERA ATERA IZANAZ ERE . PAULARENA, BERE BELAUNALDIKO BESTE HAINBAT PERTSONEN ISTORIOA IZAN LITEKE, EDO GAUR EGUNGO EDONORENA, ZERGATIK EZ?*

# Paula Astigarraga

## "Bezeroari egia esan



**Baserrian jaioa izan arren goiz alde egin zenuen kalera.**
Bai. San Lorentzoko Amesti baserrian jaio nintzen 1920ko maiatzaren 3an eta 14 urte nituela kalera jaitsi eta neskame sartu nintzen Barrutia jatetxe-hostatuan. 21 urte bete arte egon nintzen bertan. Barrutianean pasa nituen zazpi urte haiek ikastetxe batean egotea modukoa izan zen niretzat. Asko zor diet bertakoei eta bizitza guztirako zorretan egongo naiz, ezer jakin gabe iritsi bainintzen. Nire ezjakintasunaren adierazgarri den pasadizo bat dut gogoan: behin ostatu hartzen zuen jaun batek "súbame la prensa" eskatu eta zer zen hura galdetu behar izan nien etxekoei, pentsa!

**Eta gero zer?**
Hurrengo zazpi urteetan Zumaiako Hotel Zumaian lan egin naban uda partean. Neguan, berriz, makinan bordatzen ikasi eta zerbitzari moduan ere biharra egin naban, Arraten eta Eibarren, esaterako. 26 urterekin ezkondu nintzen.

**Nola bilatzen zen garai hartan nobixua?**
Ez zen erraza ez baigeneukan asti askorik nobixorik topatzeko. Lanean ibili nintzen bitartean San Lorentzo Eguneko bazkarira eta Gabon gaueko afarira joateko bakarrik libratzen nuen. Hala ere, 21 urterekin Gurutzeta edo Madarixan egoten ziren erromerixetara joaten ginela akorduan dakat. Bizitza zaila geneukan, baina beti aurrera. Atzera justukoa begiratu behar da, beti aurrera.

**Noiz hasi zinen lanean Osoro zapata dendan?**
Duela 58 urte hasi nintzen, Txominekin (Osoro) ezkondu ostean, alegia. Denda gaur egun dagoen tokian ireki genuen, beti egon baita leku berean. Hura ez zen zapata denda ez ezer, saltzeko zapata gutxi geneuzkan-eta. Nire senarrak konponketak eta neurrira egindako zapatak egiten zituen garai hartan. Astean bi edo hiru pare ateratzen zituen.

**Non ikasi zuen senarrak zapatak egiten?**
Ortuetanean, bertako langilea izan baitzen. Alberto Ortuetak irakatsi zion zapatak neurrira egiten eta konpontzen. Urte asko egin zituen han eta neskalaguna topatu zuenean, gaur egungo gazteek egiten duten moduan, buruari bueltak ematen hasi eta bere kontura lanean hastea erabaki zuen.

**Zure eginbeharra saltzea zen, beraz?**
Bai, Txominek ez du gogoko jendaurrean aritzea, nahiago zuen txoko batean zapatak egiten biharra egin.

## ezean, hura ez da berriz itzuliko”





### “DUELA 58 URTE IREKI GENUEN ZAPATA DENDA, EGUN DAGOEN LEKU BEREAN”

### “GIZONEN ZAPATAK KLASIKOAK ETA EMAKUMEENAK FANTASIAZKOAK IZATEN DIRA”

Ordura arte josten aritzen nintzen ni. Bittori Agirregomezkortakin ikasi ondoren hiru edo lau neskari bordatzen erakusten nien. Hura laga eta neu hasiko nintzela dendarekin esan nion senarrari. Dirurik ez geneukan biotako inork, ordea, Amestitik atera eta kalean irabazitako diru guztiak entregauta geneuzkan-eta. Hortaz, hutsetik hasi ginen.

**◗ Gogorra izango da negozio bat hutsetik hastea?**

Bai. Zorionez, amistade handia neukan Zumaiako Aiestaran zapata dendako ugazabarekin, Zumaian lanean ibili nintzen garaitatik ezagutzen bainuen. Hark laga zizkidan zapata pareei esker hasi ginen. Pareak ekarri, eskaparatean jarri eta salduz gero, prezioaren %14a irabazten naban. Saltzen ez nituenak sei egun baino lehenago itzuli eta gero beste batzuk atzera berriz ekarri. Holaxe hasi naban denda.

**◗ Lan gogor eginda.**

Bai, asko. Goizaldeko 1:00etaraino egiten genuen biharra. Denda itxi eta atzealdean dagoen tailertxoan hasten nintzen lanean josteko makinarekin. Larruzko petatxoak josi eta antzerakoak eginez.

**◗ Azkenean egonkortu zenuten dendaren egoera.**

Zoritxarrez hasi eta berehala hilabete batzuk ohean gaixo pasa nituen, nire alaba Mila izan eta gero. Garai hartan ez zegoen gaur egungo aurrerapenik eta erditze zail baten ostean, garaipen latza izan zen alaba bizirik mantendu izana. Osatu nintzenean dendarekin jarraitu eta poliki-poliki, baina ez esfortzurik gabe hobetzen joan ginen. Lehenik zapatak biltegi handietatik ekarriz eta fabrikatik zuzenean geroago. Elda (Alicant) eta Mallorcatik ekarri izan ditugu. Orain denda oso duina daukagula iruditzen zait.

**◗ Lehen sarriago konpontzen al zituen jendeak zapatak?**

Bai, oraindik ere konpontzen dira, baina ez lehen beste. Gazteek batez ere, errazago erosten dituzte zapatak, modan edo egunera egoteko.

**◗ Jendaurrean lan egitea gogoko duzu?**

Bai, demasa. Oraindik ere gustura ibiltzen naiz dendaren bueltan, nahiz eta duela 20 urte laga nion lan egiteari. Alabak askotan eskatzen dit nire iritzia eta gustura asko ematen diot. Dendarekin maiteminduta nago. Oraindik ere asko gustatzen zait etortzen diren zapata berriak ikusi, zer ezaugarri dituzten ezagutu eta akatsik duten ere begiratzen diet, noski. 20.000 pezeta balio arren, akasdunak izan baitaitezke.

**◗ Egiguzu saltzaile onaren erradiografia.**

Saltzaileak argi eta garbi izan behar du erosleak duela beti arrazoia eta azken berba. Niri pertsonalki generoa nolakoa den azaltzea gustatzen zait eta beti saiatu naiz eroslearengana asko hurbiltzen.

**◗ Eta zapatek, nolakoak behar dute izan?**

Gizonezkoentzako zapatak klasikoagoak izan dira beti, nahiz eta azken aldian diseinua asko nagusitu. Emakumezkoen zapatak gehiago izan dira fantasiazkoak. Zapatetan orain dagoen moda oso deportiboa da. Lehen askoz aukera gutxiago zegoen “sota, caballo, rey” eta ahal zenean erosten zen zapata parea.

**◗ Zapatak takoidunak ala takoi gabeak?**
Takoiak eramaten jakin egin behar da. Batzuk duintasunez eramaten dituzte eta nire txaloak merezi dituzte. Bizkar hezurrarentzat ez dirudi mesedegarria izango denik, baina dendan ezin dezakegu sekula horrelakorik esan. Bezeroak nahi duena eskaintzeko prest egon behar gara beti, datorrenak badaki zer nahi daban.
Guk dendan zer dagoen azaldu behar diogu, erosoa izan dadila, minik egingo ez diona, etab. Hori bai, beti egia esanez, bestela ez baita berriz itzuliko.

**◗ Kalean begiratzen al diezu jendearen oinetakoei?**
Bai, asko. Dendara zapata sorta berriak ekartzen dituztenean ere gustatzen zait nola eginak dauden begiratzea, nolako plantilla duen; larruzkoa, uretarako balio duen, e.a.

**◗ Orain zure alabak jarraitzen du dendarekin. Pena emango lizuke familiako tradizioa etetea?**
Bai, noski, hainbeste kosta eta gero... Nire alabak jarraituko du, baina bere ondoren ez dago nork jarraituko, bere semeek beste bide batzuk aukeratu baitituzte bizitzan aurrera egiteko.



